



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA<



## EUSLE METODOLOGIA: 2017ko ESPERIENTZIAK

*Emaitza nagusien txostena*

Andoain, 2018ko uztaila.



## 1.- SARRERA

*Eusle metodologian* oinarritutako lau esperientzia berri aurkezten ditugu txosten honetan. Esperientzia guztiak 2017ko udazkenean egindakoak dira. Hirugarren neurraldia –esperientzia bukatu eta hiru hilabetera egin ohi duguna, alegia- 2018ko lehen hiruhilekoan egin dugu. Zehazki, honako hauek izan dira ikerraldi honetan parte hartutakoak:

- Fagor Industrial (Oñati). Labeak: 22 parte-hartzaile.
- Fagor Industrial (Oñati). Informatika saila: 12 parte-hartzaile.
- Emakunde (Gasteiz): 10 parte-hartzaile.
- Eusko Jaurlaritza (Gasteiz). Gobernantza saila: 14 parte-hartzaile.

Ikerraldi honetan erabilitako metodologia eta datu bilketa sistema 2013-2016 aldian erabilitako bera izan da. 2013-16 aldiari dagokion informazio guztia argitaratuta dago bi argitalpenetan, eta beraz bertan kontsulta litezke xehetasun guztiak<sup>1</sup>.

Ildo bereko aurreko ikerketak bezala oraingo hau ere Pello Jauregi (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra) ikerlariek zuzendu dute.

Txosten honetan ez ditugu *Eusle Metodologiari* eta ikerketari loturiko xehetasun guztiak emango. Nolabait, informazio horiek guztiak emanda daude aipaturiko argitalpenetan. Ordea, txosten honetan arreta beste nonbait jarriko dugu: funtsean jakin nahi dugu ea esperientzia berrien datuek berresten edo ezeztatzen dituzten 2013-16 aldiko hamahiru esperientziek erakutsitako joerak eta ildo nagusi haiek. Hortik begiratuta, azterketa konparatiboaren formatua eman diogu lantxo honi.

<sup>1</sup> Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2015). *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza-ohituren aldaketa lan munduan*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2017). *Aldahitz ikerketa. Eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

Bi argitalpen hauek Soziolinguistika Klusterraren web orrian kontsulta daitezke.



## 2.- BANAKAKO AZTERKETA

Banakako azterketak, bere izenak dioen moduan, gizabanakoak hartzen ditu erreferentziatzat. Hizkuntza-erabilerari dagokionez, taldeko banako edo kide bakoitzaren datuak, gainerako guztiekiko harremanean erakusten duen batez besteko joera adierazten du. Batez besteko hori, ordea, ez da norberak aitortutako hizkuntza-jokaera, baizik eta kide bakoitzaz gainerako kide guztiek esandakoaren batez bestekoa. Horrela jokatur, sendotasun handiagoa eman nahi izaten diogu datu honi, hauek guztiak datu aitortuak direla jakinda.

### Hizkuntza-erabileraren bilakaera

Gizabanako guztien hizkuntza-jokaera elkartu eta haiekin batez bestekoa eginda, talde osoaren hizkuntza-jokaeraren adierazle orokor bat eskuratzen dugu. Adierazle orokor hori 1. taulan ikus daiteke. Adierazle horren bilakaera ere bertan azter daiteke.

1. TAULA: EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA LAU LANTOKIETAN, NEURTUTAKO HIRU UNEETAN

Lantokiak	Erabilera 1 (%)	Erabilera 2 (%)	Erabilera 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
<b>N gunea</b>	48,3	69,0	61,7	20,6	-7,3	13,3
<b>O gunea</b>	33,2	43,7	37,4	10,6	-6,4	4,2
<b>P gunea</b>	59,1	73,6	70,9	14,5	-2,6	11,9
<b>Q gunea</b>	33,9	51,3	37,9	17,4	-13,4	4,0
<b>Guztira</b>	41,3	57,1	48,5	15,8	-8,6	7,3
<b>2013-16</b>	60,8	76,1	71,4	15,3	-4,7	10,6

Taula ongi interpretatzeko ondoko hauek kontuan hartu behar dira:

Erabilera 1: Esperientziaren hasieran eskuratutako euskararen erabileraren datuak dira (erabilera aitortua)

Erabilera 2: Esperientziaren esku hartze zuzena amaitzerakoan eskuratutako euskararen erabileraren datuak (erabilera aitortua)

Erabilera 3: Esperientzia zuzena amaitu eta hiru hilabetera eskuratutako euskararen erabileraren datuak (erabilera aitortua)

Aldea 1: Honek adierazten du zenbat puntuko aldea dagoen erabilera 1etik erabilera 2ra.

Aldea 2: Honek adierazten du zenbat puntuko aldea dagoen erabilera 2tik erabilera 3ra.

Aldea 3: Honek adierazten du zenbat puntuko aldea dagoen erabilera 1etik erabilera 3ra.

2013-16ko esperientziak eta 2017koak alderatzen ditugunean, azpimarratu beharreko aurreneko datua da biek ala biek euskararen erabileran antzeko susperraldia eragin dutela esperientzian zehar: 15,3 puntuko susperraldia 13-16koan eta 15,8 puntukoa 17ko aldirian, hurrenez hurren. Ordea, atsedeen-tarteak eragindako murrizaldia handiagoa izan da 17ko aldirian (-8,6 puntukoa) 13-16ko aldirian baino (-4,7 puntukoa). Horren arrazoa izan daiteke -ondorengo azterketan argituko den bezala- abiapuntuko hizkuntza-jokaera baxuagoa izan dela 17ko aldirian (%41,3) 13-16ko aldirian baino (%60,8).



EUSLE METODOLOGIA (ALDAHITZ PROIEKTUA): 2017ko ESPERIENZIAK

2017ko unibertsoan bi esperientzia hizkuntza-jokaera baxutik abiatu dira, eta beste bi hizkuntza-jokaera ertainetik. Abiapuntu ezberdin horiek zertxobait eragiten dute hizkuntza-bilakaeran, hurrengo bi tauletan ikus daitekeen bezala. 2. taulan alderatu egin dira hizkuntza-jokaera baxutik abiatu diren esperientziak 2013-16 aldian eta 2017 aldian. Azterketa bera egin da hizkuntza-jokaera ertainetik abiatu diren esperientzietarako, eta 3. taulan duzue ikusgai.

2. TAULA: HIZKUNTZA-JOKAERA BAXUTIK ABIATUTAKO ESPERIENZIEK BILAKAERA<sup>2</sup>

Ikerraldiak	Erabilera 1 (%)	Erabilera 2 (%)	Erabilera 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
2013-16	28,0	49,7	34,6	21,7	-15,1	6,6
2017	33,6	47,5	37,7	14,0	-9,9	4,1

3. TAULA: HIZKUNTZA-JOKAERA ERTAINETIK ABIATUTAKO ESPERIENZIEK BILAKAERA<sup>3</sup>

Ikerraldiak	Erabilera 1 (%)	Erabilera 2 (%)	Erabilera 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
2013-16	49,8	73,1	63,4	23,3	-9,7	13,6
2017	53,7	71,3	66,3	17,6	-5	12,6

Badirudi hizkuntza-jokaera baxutik abiatutako esperientziek egoera ertainetik abiatutakoekin baino “susperraldi” txikixeago eta “murrizaldi” handixeagoa dutela. Horren ondorioz, “finkatutako aurrerapena” altuxeago ematen da ertainekoen kasuan (12,6/13,6 puntukoa) baxukoaren artean baino (4,1/6,6 puntukoa)<sup>4</sup>. Nolanahi ere, hizkuntza-jokaera baxuen arteko alderaketari dagokionez, antzekotasunak egon arren, aipatzekoa da 2017ko “finkatutako aurrerapena” baxuagoa dela 2013-16 aldian neurtutakoa baino

Joeratxo honek zertxobait azalduko luke datu orokorretan ikusitako murrizaldiaren handitzea. Izan ere, 2017ko esperientzietan hizkuntza-jokaera baxutik abiatutako esperientziek %50 suposatzen dute. Berriz, 2013-16ko aldian %15,4.

<sup>2</sup> Taula hau osatzeko honako lantoki hauek kontuan hartu dira: 2013-16 aldiari dagokionez, G gunea (abiapuntua %33) eta L gunea (abiapuntua %22,9); eta 2017 aldiari dagokionez, O gunea (%33,2) eta Q gunea (%33,9)

<sup>3</sup> Taula hau osatzeko honako lantoki hauek kontuan hartu dira: 2013-16 aldiari dagokionez, B gunea (abiapuntua %45,8), D gunea (abiapuntua %44,6), F gunea (%49,4) eta H gunea (%59,3); eta 2017 aldiari dagokionez, N gunea (%48,3) eta P gunea (%59,3)

<sup>4</sup> Testuinguru honetan “susperraldia” aldea1 aldagaiari dagokio, hau da esperientziaren tartean euskararen erabilera izan duen aurrerapena. Era berean, “murrizaldia” aldea2 aldagaiari dagokio, eta horrek ematen du neurria atsedentartean hizkuntza-jokaerarekin zer gertatu den. Azkenik, “finkatutako aurrerapena” aldea3 aldagaiari dagokio, hau da: esperientziaren susperraldiaren eta atsedentarteak ekarri ohi duen murrizaldiaren ondoren finkatuta gelditu den hizkuntza-jokaera.



### Hizkuntza-jokaera aldatzeko tartea eta harekiko emaniko aurrerapenak

Aurreko atalean kide bakoitzaren eta guztien batez bestekoaren euskararen erabileraren bilakaera ikusi dugu. Era berean, ikusi dugu bilakaera horretan zenbat puntutan egin duten kideek aurrera edo atzera neurketatik neurketara. Baina esaten dugunean, adibidez, talde batek lehenengo neurketatik bigarrenera 24 puntuko aurrerapena egin duela, nola interpretatu behar dugu datu hori? Handia al da aurrerapen hori? Txikia al da? Txikia edo handia moduko balorazioak ez dira absolutuak izaten, erlatiboak baizik, eta, ondorioz, jakin behar genuke zein erreferentzia erabiltzen ari garen txikia/handia moduko kontzeptuak erabiltzen ditugunean.

Gure kasuan, “hizkuntza-jokaera aldatzeko tartea” kontzeptua erabiltzen dugu erreferentziatzat, kideek eta taldeak euskararen erabileran egindako aldaketak baloratzeko. Horrela, jakinda zein den talde baten euskararen erabilera, “aldatzeko tartea” litzateke puntu horretatik euskararen erabilera %100 izateraino dagoen tartea<sup>5</sup>.

4. TAULA: KIDEEN EUSKARAREN ERABILERA ALDATZEKO TARTEA

Langileak	Euskararen erabilera hasieran (%)	Aldatzeko tartea (%)	Guztira (%)
<b>N gunea</b>	48,3	51,7	100
<b>O gunea</b>	33,2	66,8	100
<b>P gunea</b>	59,1	41,0	100
<b>Q gunea</b>	33,9	66,1	100
<b>Guztira</b>	41,3	58,7	100
<b>2013-16</b>	60,8	39,2	100

Ondoren, kalkula dezakegu zenbat murriztu den tarte hori esperientziaren ondorioz. Tarte hori (euskarazko jokaera guztizkoa izateko zegoen tartea alegia) osoki murriztu da? Tarte horren erdia murriztu da? Tarte horren %10a? Ideia horretan oinarrituta bi kalkulu egingo ditugu: “aldaketa 1” izeneko batetik, eta bertan kontuan hartu dugu erabilera 1 eta erabilera 2 neurketen arteko hizkuntza aldaketa. Bestetik, “aldaketa 2” izeneko, eta horretan tarte handiago bat hartuko dugu aintzat: erabilera 1 eta erabilera 3 neurketen arteko hizkuntza aldaketa, hain zuzen ere.

<sup>5</sup> Izatez, tarte hori balizkoa da, edo teorikoa, esperientzia horiek egitean ez baita planteatzen helburua euskararen erabilera %100 izate hori helburu gisa. Nolanahi ere, talde baten hizkuntza-erabileran gertatzen den aldaketa ebaluatzeko erreferentzia interesgarri bat dela iruditzen zaigu.



5. TAULA: KIDEEK BATEZ BESTE EUSKARAREN ERABILERAN EGINDAKO ALDAKETA PROPORZIONALA

Langileak	Aldaketa 1 (%)	Aldaketa 2 (%)
<b>N gunea</b>	39,9	25,8
<b>O gunea</b>	15,8	6,3
<b>P gunea</b>	35,4	29,0
<b>Q gunea</b>	26,3	6,0
<b>Guztira</b>	26,9	12,3
<b>2013-16</b>	39,0	27,0

Taula honetako datuak honela irakurri beharko lirateke: N guneko kideek, batera hartuta, hizkuntza-jokaera dela eta **alda zezaketen guztiaren %39,9 aldatu dute.**

Aldea ikusten da batetik N eta P guneen eta bestetik O eta Q guneen artean. Bereizketa horrek bat egiten du taldeen abiapuntuko hizkuntza-jokaerarekin. Alde batetik, N eta P gunek ditugu hizkuntza-jokaera ertainetik abiatutakoen artean, eta beren aldaketa proportzionalak bat egiten du 2013-16 aldiko proportzioekin. Ordea, O eta Q gunek dira hizkuntza-jokaera baxutik abiatutako gunek, eta beren emaitzak 2013-16 aldiak emandako proportziotik nabarmen behera daude. Zehazki, finkatutako aurrerapena 21 puntu baxuagoa da ordura arteko batez bestekoarekin alderatuta.

#### Eusle izan diren eta izan ez diren langileen hizkuntza-erabileraren bilakaera

2017ko esperientzietan, 2013-16koen artean bezala, eusleak aukeratzeko garaian taldeek joera izan dute hizkuntza-jokaera altuen zuten kideak aukeratzeko. Baina joera hori are nabarmenagoa izan da aldi berrian aurreko aldian baino. Eusleen eta ez eusleen arteko aldea, hizkuntza-jokaerari dagokionez, 27,8 puntukoa izan da aldi berrian (2017) eta 14,5 puntukoa zen aurreko aldian (2013-16). Oro har, ez eusleen abiapuntuko hizkuntza-jokaera baxuagoa izan da aldi berrian aurreko aldian baino.

Aurreko faktoreak izan arren, badirudi esperientziak susperraldi proportzio berdintsuak ekarri dituela bai eusleen eta bai ez eusleen artean ere, bai aurreko aldian eta bai aldi berrian ere. Ordea, badirudi aldeak gertatu direla bi aldietan “murrizaldiari” begiraturaz gero. Atsedentarteak are murrizaldi nabarmenagoa ekarri du, hizkuntza-jokaerari dagokionez, aldi berrian aurreko aldian baino, eta horren ondorioz, jakina, are txikiagoa izan da finkatutako aurrerapena.

Berriro ere, datu hauen interpretaziorako jo behar dugu abiapuntuko hizkuntza-jokaerara. Datuek garbi adierazten dute abiapuntuko hizkuntza-jokaera baxua ala ertaina izan, ez dagoela



EUSLE METODOLOGIA (ALDAHITZ PROIEKTUA): 2017ko ESPERIENZIAK

alde nabarmenik susperraldian, baina bai gerora jokaera finkatzeko garaian: hizkuntza-jokaera baxutik abiatutako taldeek murrizaldi handiagoa jasaten dute egoera ertainetik abiatutakoek baino. Joera hauek eragin handiagoa izan dute aldi berriko esperientzietan (laginaren erdia, hots %50, hizkuntza-jokaera baxutik abiatutako esperientziak izan baitira) aurreko esperientzietan baino.

6. TAULA: EUSLE IZAN DIRENEN ETA IZAN EZ DIRENEN BATEZ BESTEKO ERABILERA NEURKETA BAKOITZEAN

Tipologia	Erabilera 1 (%)	Erabilera 2 (%)	Erabilera 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
<b>Eusle izan da</b>	59,6	78,5	67,3	18,9	-11,2	7,7
<b>Ez da eusle izan</b>	31,8	46,0	38,9	14,2	-7,2	7,0
<b>2013-16</b>						
<b>Eusle izan da</b>	69,8	86,5	79,0	16,7	-7,5	9,1
<b>Ez da eusle izan</b>	55,3	69,7	66,7	14,3	-2,9	11,4

7. TAULA: EUSKARAREN ERABILERAN EGINDAKO ALDAKETA PROPORZIONALA

Tipologia	Aldaketa 1 (%)	Aldaketa 2 (%)
<b>Eusle izan da</b>	46,8	19,1
<b>Ez da eusle izan</b>	20,5	10,1
<b>2013-16</b>		
<b>Eusle izan da</b>	48,8	26,6
<b>Ez da eusle izan</b>	28,8	22,9

Badirudi hizkuntza-jokaerari dagokionez aldaketa proportzionala zertxobait nabarmenagoa dela eusleen artean ez eusleen artean baino, bai esperientziak ekarritako susperraldian eta bai atsedeen-tartearen ondoren finkatutako aurrerapenean ere. Joera bera antzematen da aldi berrian nola aurreko aldian ere. Hala ere, oso gertukoa da eusleen eta ez eusleen hizkuntza-bilakaera (finkatutako aurrerapena 7,7 puntu eusleen artean eta 7,0 ez eusleetan). Bi aldietako datuen artean aipatu ditugu ezberdintasun batzuk. Hala ere, 2017ko esperientzietan errepikatu egiten da 2013-2016 aldiko joera bat: batez beste, finkatutako aurrerapena antzerakoa da eusle izan diren eta izan ez diren lankideen artean.



### Eusleen hizkuntza-arauea betetzearen maila

Eusleek euren zereginaren betetze maila neurtzeko garaian hiru kategoriako eskala erabili ohi dugu: “bai”, “erdizka” eta “ez”. Kategoria bakoitzeko tartea ehuneko eskala batean emanda honako korrespondentzia hauek erabiltzen ditugu: “bai” (%90-%100), “erdizka” (%70-%89) eta “ez” (%0-%69).

8. taulak alde esanguratsu bat plazaratzen du bi aldien artean. Nabarmen baxuagoa izan da (22,9 puntu baxuagoa) aldi berrian aurreko aldian baino zeregina osoki (“bai” kategoria) bete duten eusleen kopurua. Aldi berrian eusleen %26,3k “bai” osoki bete du metodologiak eskatutako hizkuntza-arauea. Kopuru hori %49,2ra igotzen da aurreko esperientzien kasuan.

Alde honek ere laguntzen du azaltzen zergatik aldi berrian finkatutako aurrerapenaren kopurua txikiagoa izan den aurreko esperientzietan baino. Ditugun datuen arabera, hizkuntza-arauearen betetze maila osoa (“bai” kategoria) eusleen %21,7k lortzen du batez beste taldea hizkuntza-jokaera baxutik abiatzen denean (kalkulu honetan bi alditako esperientzia guztiak daude sartuta). Berriz, errazagoa suertatzen zaie hizkuntza-arauea osoki betetzea hizkuntza-jokaera ertainetik edo altutik abiatzen diren taldeetako eusleei (eusleen %43,9k lortzen du hizkuntza-arauea osoki betetzea).

Beraz, guztiz lotuta agertzen dira bi gertakariak, hain zuzen, hizkuntza-jokaera baxutik abiatzea eta eusleek hizkuntza-arauea osoki betetzeko zailtasuna.

8. TAULA: EUSLEEN HIZKUNTZA-ARAUEN BETETZEAREN MAILA

Bai (%)	Erdizka (%)	Ez (%)	Guztira
26,3	63,2	10,5	100
<b>2013-2016</b>			
49,2	44,4	6,3	100

### Eusleen hizkuntza-bilakaera, hizkuntza-arauearen betetze mailaren arabera

Atal honetako taulak interpretatzeko garaian, komeni zaigu honako datu hau kontuan hartzea: bi alditako esperientzia guztiak aintzat hartuta, “bai” kategorian 36 pertsona agertzen dira, “erdizka” kategorian 40 pertsona, eta “ez” kategorian 6 pertsona. Lehenengo bi kategorietan dauden kopuruek aski oinarri sendoa ematen dute batez besteko sendoak kalkulatzeko. Ordea, “ez” kategorian dagoen pertsona kopurua oso txikia da, eta hortik ateratzen den batez bestekoak aldakortasun gehiegi dauka. Hortaz, hirugarren kategoria horri dagozkion datuak zuhurtasun handiz irakurri behar dira, ezin baitira ondorio egonkor samarrak atera.





EUSLE METODOLOGIA (ALDAHITZ PROIEKTUA): 2017ko ESPERIENTZIAK

Oro har ikusten da hizkuntza-araua osoki bete dutenek jada hasieran erabilera altuagoa zutela hizkuntza-araua erdizka bete dutenek baino. Horrek esan nahi du, besteak beste, lehenengoek bigarrenek baino jauzi linguistiko txikiagoa (ahalegin txikiagoa ere seguru asko) egin behar izan dutela hizkuntza-araua bete ahal izateko. Hizkuntza-araua bete ala erdizka bete arren, kasu guztietan antzematen dira aldaketa esanguratsuak hizkuntza-jokaeran. Hala ere, zein multzok aurreratzen duen gehiago esaterakoan ez da joera argi bat ikusten. Izan ere, joera ezberdinak ikusten dira 2017ko eta 2013-16ko esperientzien artean, 9. taulan ikus daitekeenez.

9. TAULA: EUSLEEN HIZKUNTZA-ERABILERA NEURKETAZ NEURKETA, HIZKUNTZA-ARAUAREN BETETZE MAILAREN ARABERA<sup>6</sup>

Betetze maila	Erabilera 1 (%)	Erabilera 2 (%)	Erabilera 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
<b>Bai</b>	74,0	98,5	85,3	24,5	-13,2	11,3
<b>Erdizka</b>	56,5	73,8	64,3	17,3	-9,5	7,8
<b>Ez</b>	42,2	57,0	40,2	14,8	-16,8	-2,0
<b>2013-2016</b>						
<b>Bai</b>	77,4	91,9	85,5	14,5	-6,5	8,1
<b>Erdizka</b>	66,1	83,0	75,9	17,0	-7,1	9,8
<b>Ez</b>	37,5	68,8	50,0	31,3	-18,8	12,5

10. TAULA: EUSKARAREN ERABILERAN EGINDAKO ALDAKETA PROPORZIONALA

Betetze maila	Aldaketa 1 (%)	Aldaketa 2 (%)
<b>Bai</b>	94,2	43,5
<b>Erdizka</b>	39,8	17,9
<b>Ez</b>	25,6	-3,5
<b>2013-2016</b>		
<b>Bai</b>	50,1	20,0
<b>Erdizka</b>	50,1	28,9
<b>Ez</b>	64,2	35,8

<sup>6</sup> Ohar honen bidez, akats baten berri eman nahi dugu, "Eusle Metodologia. Esperientzien emaitzak (2013-2016)" argitalpenean agertutakoa. 59. orrialdean ageri da akatsa 7. taulan ("Eusle hizkuntza-erabilera neurketaz neurketa, hizkuntza-arauaren betetze mailaren arabera"). Taula horretan "Bai" eta "Ez" kategorien datuak trukaturatu agertzen dira transkripzio arazo baten ondorioz. Argitalpen honetan datuak zuzenduta daude.



### 3.- BINAKAKO AZTERKETA

#### Bikoteen bilakaera, hizkuntza-kategoriaren arabera

Biko harremanak (bikoteak) hizkuntza-kategoriaren arabera sailkatu dira atal honetan. Hizkuntza-kategoria horiek euskararen eta erdararen erabileraren zenbatekoa hartzen dute aintzat. Bikote bat kategorian batean ala bestean kokatzeko lau daturen batez bestekoa egin da. Zehazki honako hauek:

A-k eta B-k osatutako bikotearen hizkuntza-kategoria zehazteko, esaterako, kontuan hartu dira:

- A kidearen ustez, berak B kidearekin zein hizkuntza-jokaera duen
- A kidearen ustez, B kideak berarekin zein hizkuntza-jokaera duen
- B kidearen ustez, berak A kidearekin zein hizkuntza-jokaera duen
- B kidearen ustez, A kideak berarekin zein hizkuntza-jokaera duen

Bikote guztiak era horretara hizkuntza-kategoria batean edo bestean sailkatuta, ikus dezakegu hurrengo taulan zenbat bikote zeuden kategorian bakoitzean hiru neurketetako bakoitzean. Hizkuntza-bilakaeraren ikuspuntutik orokorra emango digu horrek.

11. TAULA: BIKOTEAK HIZKUNTZA-KATEGORIAREN ARABERA: HIZKUNTZA-BILAKAERA

Hizkuntza-kategoriak	Erab.1 (%)	Erab. 2 (%)	Erab. 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
<b>Beti edo ia beti gaztelaniaz</b>	34,6	14,4	23,9	-20,3	9,5	-10,8
<b>Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago</b>	21,2	19,9	23,9	-1,3	3,9	2,6
<b>Bietan berdin</b>	7,2	14,4	9,8	7,2	-4,6	2,6
<b>Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago</b>	9,2	12,7	9,8	3,6	-2,9	0,7
<b>Beti edo ia beti euskaraz</b>	27,8	38,6	32,7	10,8	-5,9	4,9
<b>2013-16</b>						
<b>Beti edo ia beti gaztelaniaz</b>	10,8	4,9	7,6	-5,9	2,7	-3,2
<b>Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago</b>	18,4	9,7	11,5	-8,7	1,8	-6,9
<b>Bietan berdin</b>	13,0	11,3	11,9	-1,7	0,6	-1,1
<b>Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago</b>	15,7	18,1	17,2	2,4	-1,0	1,5
<b>Beti edo ia beti euskaraz</b>	42,1	55,9	51,9	13,8	-4,1	9,7

11. taulako datuak aztertuta hainbat alderdi azpimarra daitezke. Aurrena, alderatzen ari garen bi unibertsoek beren artean dauzkaten desberdintasunak. Izan ere, 2013-16 aldiko



esperientzietan gutxi baziren “beti edo ia beti gaztelaniaz” egiten zuten bikoteak (bikote guztien %10,8), eta, aitzitik, asko “beti edo ia beti euskaraz” egiten zutenak (bikote guztien %42,1), 2017 aldiko esperientzietan txanponaren beste aldea sumatzen da: gehiago dira “beti edo ia beti gaztelaniaz” egiten duten bikoteak (%34,6) “beti edo ia beti euskaraz” egiten dutenak baino (%27,8).

Datu horietan oinarrituta hizkuntza-bilakaera motelagoa ikusten da aldi berrian aurreko aldi baino. Bikote gehiago iritsi ziren kategoriarik altuenera (“beti edo ia beti euskaraz”) 2013-16 aldiaren 2017 aldiaren baino, bai kopuru absolutuetan bai proportzio erlatiboetan. Baina, orduan gainerako bikoteak gertuago zeuden puntu horretatik 2017ko aldiaren baino.

### **Bikoteen tipologia, euskaraz egiteko ohituraren arabera**

Saillapen hau egiteko “beti edo ia beti euskaraz” kategoria hartu dugu erreferentzia nagusitzat. Hizkuntza-jokaera hori “euskaraz egiteko ohituraren” parekotzat hartu dugu. Nagusiki, bi multzo bereiz daitezke: 1) Esperientzia hasterako honezkero “beti edo ia beti euskaraz” egiten zuten bikoteak, eta 2) esperientzia hasterako “beti edo ia beti euskaraz” egiten ez zuten bikoteak.

Lehenengo multzoko bikoteei buruz esan dezakegu esperientzia aurretik jada “euskaraz egiteko ohitura” bazutela finkatuta, zeren hasierako neurketan jada “beti edo ia beti euskaraz” egiten zutela aitortzen baitzuten.

Bigarren multzoko bikoteek, ordea, ez zuten esperientzia hasitakoan “euskaraz egiteko ohiturarik”, ez baitzuten “beti edo ia beti euskaraz” egiten beren arteko harremanean. Hala ere, haietako batzuek esperientzian zehar lortu zuten “beti edo ia beti euskaraz” jokatzea beren arteko harremanean, eta kasu horretan interpretatuko genuke bikote horiek tarte horri zegokionez behintzat euskaraz egiteko ohitura lortu zutela. Esperientzia bukatu eta hiru hilabetera egindako neurketan haietako batzuek jarraitzen zuten beren artean “beti edo ia beti euskaraz” egiten, eta orduan hizkuntza-jokaera hori finkatutzat eman zitekeen. Beste batzuek, ordea, honezkero ez zuten “beti edo ia beti euskaraz” egiten, eta hortaz pentsa liteke euskaraz egiteko ohitura galdu edo zertxobait ahuldu egin zela.

Azkenik, bigarren multzoko bikoteen artean, beste tipologia bat antzeman zitekeen, esperientzian zehar “beti edo ia beti euskaraz” egitera iritsi ez ziren bikoteek osatutakoa. Bikote hauetako askok eta askok euskarazko jokaeran aurrerapausoak eman arren, ez zuten lortu erabilerarik altuena, ohiturazko jokaerari bide ematen diona.

Bikote kategorია hauek guztiak datuetan argituta ematen dira hurrengo taulan.



12. TAULA: BIKOTEEN SAILKAPENA, EUSKARAZ EGITEKO OHITURAREN ARABERA

Tipologia	2017	2013-16	
Aspaldiko euskarazko ohiturari eutsi	24,8	40,4	
Aspaldiko euskarazko ohitura zertxobait jaitsi	2,3	1,7	
<i>Azpi-guztira</i>	27,1	42,1	
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	6,5	11,4	
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	5,2	6,2	
Euskarazko ohitura berria lortu ez	61,1	40,3	
<i>Azpi-guztira</i>	72,9	57,9	
<i>Guztira</i>	100	100	

Berriro agertzen zaizkigu bi unibertsoen osaketa desberdina. Gutxiago dira 2017ko aldiari abiatu aurretik jada euskaraz egiteko ohitura zuten bikoteak (%27,1) 2013-16 aldiari baino (%42,1). Edo gauza bera, baina alderantziz esanda: gehiago dira 2017ko aldiari euskaraz egiteko ohitura lorkizun zuten bikoteak (%72,9) 2013-16 aldiari baino (%57,9). Horrek guztiak berresten du aldi berriko esperientziak hizkuntza-jokaera baxuagotik abiatu zirela.

**Euskaraz egiteko ohituraren arabeko bikote tipologia: Hizkuntza-bilakaera**

Ondoko taula egiteko bi eragiketa egin dira. Aurrena, multzo bereko bikote guztien erabileraren batez bestekoa egin da bosteko eskalaren arabera (bost hizkuntza-kategorien arabera alegia). Bigarrena, batez besteko emaitzak ehuneko eskalara aldatu dira.

Hizkuntza-kategoriak ehuneko eskalara aldatzean, honako korrespondentzia hauek kontuan hartu dira:

- Beti edo ia beti gaztelaniaz %0
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago %25
- Bietan berdin %50
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago %75
- Beti edo ia beti euskaraz %100



13. TAULA: EUSKARAZ EGITEKO OHITURAREN ARABERAKO BIKOTE TIPOLOGIA: HIZKUNTZA-BILAKAERA

Tipologia	Erab.1 (%)	Erab. 2 <sup>7</sup> (%)	Erab. 3 (%)	Aldea 1 (+/-)	Aldea 2 (+/-)	Aldea 3 (+/-)
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,8	95,6	93,6	27,8	-2,1	25,7
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	34,0	87,9	61,7	53,9	-26,2	27,7
Euskarazko ohitura berria lortu ez	13,4	31,7	20,7	18,3	-11,0	7,3
<b>2013-2016</b>						
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,7	94,2	100	26,5	5,8	32,3
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	54,7	100	69,5	45,3	-30,5	14,8
Euskarazko ohitura berria lortu ez	29,1	46,9	40,1	17,7	-6,7	11,0

Jokaera antzekoak antzematen dira bi aldietako esperientzietan. Euskaraz jarduteko ohitura esperientzian zehar lortu eta gerora ere eutsi dioten bikoteak ziren jada hasieran hizkuntza-jokaera altua zutenak (2013-16koan euskararen erabilera %67,1, eta 2017koan %67,8). Beste era batera esanda: “beti edo ia beti euskaraz” egitera iritsitako eta horretan finkatutako bikote gehienak “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategorian zeuden kokatuta esperientzia hasterako. Beraz, koska bat gora egin dute hizkuntza-kategoriaren eskalan.

Euskarazko ohitura lortu baina gerora galdu dutenen irudi orokorra da abiapuntuan hizkuntza-jokaera ertaina zutenekoa (gehienbat “bietan berdin” hizkuntza-kategorian koka daitezkeenak), eta esperientzian zehar bi koska gora egitea lortu dutenak (“beti edo ia beti euskaraz” kategoria iristeraino), baina atsedentartean koska bat behera egin dutenak (“euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategorian kokatuz).

Euskarazko ohitura eskuratu ez dutenek, oro har, hizkuntza-jokaera baxua zuten abiapuntuan (gehienbat beheko bi kategorietan kokatuta: “beti edo ia beti gaztelaniaz” eta “gaztelaniaz euskaraz baino gehiago”). Esperientzian zehar batez beste koska bat gora egin dute, eta, oro har, koska horri eutsi zaio atsedentartean ondoren ere. Deskribapen honek joera nagusia besterik ez du zirriborrotzen. Jakina, badira salbuespenak han eta hemen. Esaterako, koska bat baino gehiago aurreratu duena, eta baita koska bat bera ere gora egin gabe bere horretan gelditu dena. Baina ez gara orain azterketaren xehetasun guztietan sartuko.

<sup>7</sup> Kalkuluei begira, %87,5etik aurrera kontsideratzen dugu 5 kategorian gaudela (“beti edo ia beti euskaraz”). 5 kategoria da, hemen, euskarazko ohitura lortzearen parekidea.



### Euskaraz egiteko ohituraren araberako bikote tipologia: Hizkuntza-jokaera aldatzeko tartea eta harekiko emaniko aurrerapenak

Aurrena, gogoratu behar da zer den “aldatzeko tartea”. Aldatzeko tartea da, beraz, euskararen erabilera %100 izateko multzo, bikote, edo pertsona bati falta zaion tartea, une bateko erabilera maila kontuan harturik.

14. TAULA: MULTZO BATZUEK EUSKARAREN ERABILERA ALDATZEKO DUTEN TARTEA

Tipologia	Erabilera hasieran	Aldatzeko tartea	Guztira
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,8	32,2	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	34	66	100
Euskarazko ohitura berria lortu ez	13,4	86,6	100
<b>2013-2016</b>			
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	67,7	32,3	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	54,7	45,3	100
Euskarazko ohitura berria lortu ez	29,1	70,9	100

Ondoren, kalkulatu dugu zenbat murriztu den tarte hori esperientziaren ondorioz. Tarte hori (euskarazko jokaera guztizkoa izateko zegoen tartea alegia) osoki murriztu da? Tarte horren erdia murriztu da? Tarte horren %10a? Ideia horretan oinarrituta bi kalkulu egingo ditugu: “aldaketa 1” izeneko batetik, eta bertan kontuan hartu dugu erabilera 1 eta erabilera 2 neurketen arteko hizkuntza aldaketa. Bestetik, “aldaketa 2” izeneko, eta horretan tarte handiago bat hartuko dugu aintzat: erabilera 1 eta erabilera 3 neurketen arteko hizkuntza aldaketa, hain zuzen ere.

15. TAULA: MULTZO BATZUEK EUSKARAREN ERABILERAN EGINDAKO ALDAKETA PROPORZIONALA

Tipologia	Aldaketa 1	Aldaketa 2
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	86,3	79,8
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	81,7	42,0
Euskarazko ohitura berria lortu ez	21,1	8,4
<b>2013-2016</b>		
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	82,0	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	100	32,7
Euskarazko ohitura berria lortu ez	25,0	15,5



EUSLE METODOLOGIA (ALDAHITZ PROIEKTUA): 2017ko ESPERIENTZIAK

Taula honetako datuak honela irakurri beharko lirateke: 2017an, “Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu” duten kideak batera hartuta, hizkuntza-jokaera dela eta **alda zezaketen guztiaren %79,8 aldatu dute.**

“Aldaketa 2” aldagaia aztertzerakoan ikusten da aldaketaren proportzionaltasuna bikoteen hasierako hizkuntza-kategoriaren kokapenari lotuta ageri dela. Ondorioz, bikote bat koska gorenetik (“beti edo ia beti euskaraz”) zenbat eta gertuago egon, orduan eta aldaketaren proportzioa ere altuagoa izan da, eta zenbat eta urrutiago egon, orduan eta aldaketa proportzio txikiagoa.

Hala ere, azpimarratzekoa da “aldaketa 1” aldagaiak adierazten duena. Hau da: “euskarazko ohitura lortu eta galdu” duten bikoteak izan dira proportzionalki esperientzian zehar aldaketarik handiena egin dutenak. Goreneko hizkuntza-kategoriatik bi koska beherago kokatuta egon arren, hizkuntza-jokaera alda zezaketen guztia (%100 2013-16ko aldian) edo ia guztia (%81,7 2017ko aldian) aldatu dute. Aldaketa ikaragarri hori ez da guztiz finkatu, eta atsedeen-tartean murrizaldiak eragin handia izan du multzo honetan. Hala ere, egindako aldaketa guztia finkatu ez bada ere, bai erdia behinik behin.



### Euskaraz egiteko ohituraren arabeko bikote tipologia: kideen ezaugarriak (eusle izan ala ez)

Ondorengo azterketan bi tipologia uztartu dira. Batetik, “euskarazko ohitura lortu” aldagaiaren inguruko tipologia, eta aurreko ataletan honezkero erabili izan duguna. Bestetik, “eusle izan ala ez” aldagaiaren arabera eraikitako tipologia. Azken tipologia hau ez dugu oraino erabili, eta, horregatik, haren kategoriak azaltzeari emango diogu lehenengo tarte. Guztira hiru kategoria zehaztu ditugu, honako hauek:

E+E : bi kideak eusle izan dira. E hizkiak eusle izan dela adierazi nahi du

E+A: kide bat eusle izan da eta bestea ez. A hizkiak kide arrunta izan dela adierazi nahi du

A+A: ez bata ez bestea ez dira eusle izan, hots: biak kide “arruntak”

Hona hemen, bada, bi tipologia hauek gurutzatzearen ondorioz, agertzen zaigun taula:

16. TAULA: BIKOTEEN BANAKETA, “HIZKUNTZA-OHITURA” ETA “EUSLE” ALDAGAIEN ARABERA

Tipologia	E+E	E+A	A+A	Guztira
<b>Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu</b>	10,0	50,0	40,0	100
<b>Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu</b>	12,5	56,3	31,3	100
<b>Euskarazko ohitura berria lortu ez</b>	5,3	52,4	42,2	100
<b>2013-2016</b>				
<b>Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu</b>	9,4	60,7	29,9	100
<b>Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu</b>	25,0	64,1	10,9	100
<b>Euskarazko ohitura berria lortu ez</b>	7,5	39,7	52,8	100

Badirudi euskarazko ohitura lortu eta galdu dutenen kasuan “eusle” aldagaiaren presentziak aldea markatu duela. Bi aldietan ikusten da hori, nahiz eta joera argiago agertu 2013-16 aldian. Beraz, halako bikoteetan eusleren bat izateak asko suspertu du euskararen erabilera, baina aldi berean bertan izan da galerarik handiena atsedent-tartearen ondoren. Gainerako bikote motetan baino hauetan izan dira aldaketarik handienak, bai gorako mugimenduetan bai beherakoetan ere.

Oso azpimarratzekoa da euskarazko ohitura lortu eta finkatu duten bikote askotan ez dela izan tarteko eusle bakar bat ere. Joera hori jada 2013-16 aldian ikusi genuen (A+A tipologia: %29,9), baina 2017 aldian areago eta garbiago agertu zaigu joera bera (A+A tipologia: %40). Honek, nolabait, adierazten du metodologiaren eragina eusleen presentzia zuzenetik harago iritsi egiten dela.





### Euskaraz egiteko ohituraren arabera bikote tipologia: kideen ezaugarriak (hasieran norbaitekin euskarazko ohiturarik izan ala ez)

Atal honetan ere bi tipologia gurutzatu ditugu. Batetik, “euskarazko ohitura lortu” aldagaiaren arabera eraiki eta ezagun dugun tipologia, eta, bestetik, “hasieran norbaitekin euskarazko ohitura eduki” aldagaiaren inguruan eraikitakoa. Izan ere, baziren kide batzuk esperientzia abiatu aurretik ere lankideren batekin euskaraz egiteko ohitura zutenak, eta, nolabait, halako jokaera ez zen beraientzat guztiz berria eta arrotza. Ordea, baziren beste kide batzuk halako hizkuntza-jokaera ez zeukatenak lankide bakar batekin ere, eta, hortaz, pentsa liteke haien hizkuntza-ohituraren aldaketa prozesu arrotz samarra gerta litekeela. Osagai hori kontuan harturik, honako tipologia hau egin dugu, hiru kategoriatan banatuta:

- 5+5 : bi kideek badute hasieran bertan lankideren batekin euskarazko ohitura finkatuta (euskarazko ohitura “beti edo ia beti euskaraz” hizkuntza-kategoriarekin parekatu dugu lanean zehar. Hizkuntza-kategoria horri 5 zenbakia dagokio guk erabili dugun eskalan. Hortik datorkio, beraz, multzo honi 5 zenbakiarekin identifikatzea)
- 5+0: kide batek badu lankideren batekin euskarazko ohitura finkatuta hasieran bertan, eta besteak, ordea, ez du inorekin euskarazko ohiturarik finkatuta hasierako neurketan.
- 0+0: ez kide batek ez besteak ez dute inorekin euskarazko ohiturarik finkatuta hasierako neurketan.

17. taulan bildu ditugu datu guztiak, bi tipologia hauek gurutzatu ondoren.

17. TAULA: BIKOTEEN BANAKETA, “HIZKUNTZA-OHITURA” ETA “HASIERAN NORBAITEKIN EUSKARAZKO OHITURA” ALDAGAIEN ARABERA

Tipologia	5+5	5+0	0+0	Guztira
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	50,0	50,0	0,0	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	12,5	87,5	0,0	100
Euskarazko ohitura berria lortu ez	7,5	67,9	24,6	100
<b>2013-2016</b>				
Euskarazko ohitura berria lortu eta finkatu	68,4	31,6	0,0	100
Euskarazko ohitura berria lortu eta galdu	54,7	45,3	0,0	100
Euskarazko ohitura berria lortu ez	21,8	59,3	18,9	100

2013-16 aldian ikusitako joera argi bat berriz ikusi dugu 2017 aldian ere. Izan ere, batean zein bestean, beharrezko agertzen da bikotekideren batek ala biek “5” osagaia edukitzea.



EUSLE METODOLOGIA (ALDAHITZ PROIEKTUA): 2017ko ESPERIENTZIAK

Euskarazko ohitura lortu duten bikote guztietan beti zegoen kideren bat, gutxienez, aurrez norbaitekin euskaraz beti hitz egitea zer zen ezagutzen zuena. Beraz, beste harreman batzuetan zeukaten hizkuntza-jokaera mota (“beti edo ia beti euskaraz egitea”) harreman berrietara eraman dute. Nolabait, ez zitzaien guztiz arrotz suertatzen era horretara jokatzeko. Beste aldean, ez da 0+0 kategoriako bikote bakar bat ere euskarazko ohitura lortu duenik. Kategoriatik honetako bi kideei guztiz arrotza zitzaient lantokian kideren batekin “beti edo ia beti euskaraz” hitz egitea.



## 4.- ONDORIOAK

2017an eginiko Eusle metodologiaren lau esperientzien emaitzak aztertu, eta alderatzen ditugunean aurretik 2013-16 aldian eginiko hamairu esperientzien datuekin, azpimarratu beharrako lehen ondorioa da aldi berrian ere eginiko esperientzia guztietan gora egin duela lankideen arteko euskarazko erabilerak. Alde horretatik, esperientzia berrietan ere berresten da metodologia hau baliagarria zaiela lankide-taldeei euren arteko hizkuntza-ohituretan euskararen aldera mugimenduak egin nahi dituztenean.

Nabarmenduko genukeen bigarren ondorioa, berriz, honakoa da: 2017an neurturiko erabileraren hazkundera baxuagoa da aurreko aldian neurturikoa baino (batez beste, 7,3 puntu gora 2017an, eta 10,6 2013-16 aldian). Alde horren atzean egon litekeen arrazoi garrantzitsu bat esperientzia hauen abiapuntuzko hizkuntza-jokaeran dagoen aldea da, 2017an baxuagoa izan dena.

Zentzu horretan, zailtasunak ageri zaizkigu 2013-16 aldiko hamahiru esperientziak 2017 aldiko lauokoen alderatzeko garaian, bi laginen osaketa ez baitzen guztiz alderagarri abiapuntuzko ezaugarri horri dagokionean. 2013-16 aldian hamahiru esperientzietatik bi baino ez ziren izan hizkuntza-jokaera baxutik abiatutakoak. Beraz, lagin osoaren %15,4. Ordea, 2017 aldian lau esperientzietatik bi esperientzia izan dira hizkuntza-jokaera baxutik abiatutakoak, eta, beraz, lagin osoaren %50. Hizkuntza-jokaera baxutik abiatutako esperientzien proportzio zeharo desberdin horrek zailtzen du bi laginen alderagarritasuna.

Alderaketa irizpide homogeenagoen bila, lagin bakoitzean berezi ditugu hizkuntza-jokaera baxutik eta hizkuntza-jokaera ertainetik abiatutako esperientziak, eta beren arteko alderaketa egin dugu. Hala egitean, baieztatu ahal izan dugu lehenago ere Eusle metodologia esperientzien azterketan sumatu izan dugun joera bat, zein baita hizkuntza-aldaketaren emankortasun tasa aldatu egiten dela abiapuntuko hizkuntza-jokaera baxua, ertaina ala altua izanez gero.

Hizkuntza-jokaera baxutik abiatutako esperientzietatik 6,6 puntuko aurrerapen finkatua egin zuten 2013-16 aldian, hau da, atsedentartean ondoren erakutsitako hizkuntza-hobekuntza hasierako hizkuntza-jokaerarekin alderatuta. Era antzekoan, 2017 aldian hizkuntza-jokaera baxutik abiatutako esperientzietatik 4,1 puntuko aurrerapen finkatua egin dute. Aurreko aldikoekin baina igoera apalagoa, baina nolabait multzo berean sar genezakeena.

Bestelako aurrerapena (13,6 puntukoa) izan zuten, ordea, hizkuntza-jokaera ertainetik abiatutako esperientzietatik 2013-16 aldian, eta bai 2017 aldian ere (12,6 puntukoa). Beraz, bi alditan joera homogeenoa antzematen dugu.



2017ko esperientzietan, 2013-16koen artean bezala, eusleak aukeratzeko garaian taldeek joera izan dute hizkuntza-jokaera altuko kideak aukeratzeko. Hizkuntza-jokaeran izaniko aldaketari dagokionez, metodologiak oso modu nabarmenean eragin ditu eusleen zein ez eusleen hizkuntza-jokaeran, zertxobait gehiago eusleengan ez eusleengan baino.

Baiezatu egiten da, oro har, kide gehienek koska bat gora egiten dutela hizkuntza-eskalan esperientzian zehar, eta kasu gehienetan horri eusten zaiola atsedeen-tartea izan ondoren ere. Horregatik, euskarazko ohitura lortu eta finkatu egiten duten bikoteak, normalean abiapuntuan “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategorian daude kokatuak, eta esperientziari esker lortu egiten dute “beti edo ia beti euskaraz” egitea eta horri eustea denboran zehar ere. Ordea, euskarazko ohitura lortu eta galdu egiten duten bikoteek aldaketa handixeagoa bizi izaten dute esperientzian zehar, eta normalean bi koska gora egiten dute hizkuntza-eskalan (normalean “bieten berdintsu” kategoriatik “beti edo ia beti euskaraz” kategoriara). Baina, halako bikote gehienek irabazitako bi koska horietatik bat galtzen dute atsedeen-tartea etorrira, eta, ondorioz, “euskaraz gaztelaniaz baino gehiago” kategorian finkatu egiten dira. Azkenik, euskarazko ohiturarik lortzen ez duten bikoteak beheko kategorietan dauden bikoteak dira (“gaztelaniaz euskaraz baino gehiago” eta “beti edo ia beti gaztelaniaz”). Halako bikoteek gehienetan koska bat gora egiten dute esperientzian zehar, baina ez dira iristen “beti edo ia beti euskaraz” egitera. Hauetako erdiek baino gehiago eusten diote gora egindako koska horri atsedeen-tartea pasa eta gero ere.

Ondorio hauetan gorago aipatu dugunez, 2017ko esperientzien datuen azterketak berresten du Eusle metodologiak lankideen arteko hizkuntza-ohiturak euskararen aldera aldatzeko duen baliagarritasuna. Baina noski, ahalmen hori mugatua da, eta azterketa honek agerian jartzen du sortzen diren aldaketak –nola ez- partzialak direla, eta partzialtasun hori gainera loturik dagoela esperientzien abiapuntuzko hizkuntza-jokaerarekin. Hala, aldaketa partzial horiek, erabatekoak izan daitezke esperientziak hizkuntza-jokaera altuko taldeetan abiatzen direnean. Baina metodologiak ez du indarrik –nolabait esan- hizkuntza-egoera guztiz iraultzeko esperientziak hizkuntza-jokaera ertainetik edo baxutik abiatzen direnean. Metodologiak aplikatzen den bi hilabetetan hizkuntza-aldaketak ikusi egiten dira, baina aldaketa horiek partzialak dira, ez erabatekoak. Pentsatzekoa da ez dela aski eusle metodologia behin bakarrik aplikatzea (bi hilabeteko esperientzia) hizkuntza-jokaera ertainetik eta baxutik abiatzen diren taldeak hizkuntza-jokaera erabatekora iristeko. Metodologia denboran zehar errepikatzeko aukera funtsezko kontua izan daiteke halakoetan.